



eAdministrazioa

ZIURTAGIRI ELEKTRONIKOA
LORTZEKO GIDA ERRAZA
GUÍA SENCILLA PARA OBTENER
EL CERTIFICADO DIGITAL

BEREZIA | ESPECIAL



MUNGIA

UDALA

Izapideak online 24 orduz, zugandik parajeago

Trámites online las 24 horas, más cerca de tí

Debido a la crisis sanitaria provocada por el Covid-19, nos está tocando vivir un momento de gran incertidumbre. Hemos tenido que adaptarnos a esta nueva situación, a gestionar nuestro día a día, la manera en que trabajamos, priorizando, en todo momento, nuestra salud.

A pesar de la distancia, desde el Ayuntamiento de Mungia hemos seguido ofreciendo nuestros servicios habituales de manera telemática, extendiendo los servicios online, como es el caso de la Sede Electrónica, sistema tecnológico cada vez más afianzado en nuestra sociedad. Gracias a esta plataforma, cada vez es menos necesario personarse en las oficinas de la administración pública para realizar un trámite. Para poder utilizar la Sede Electrónica será necesario que dispongamos de un sistema de firma que sustituya la manuscrita en papel: el certificado digital.

A través de esta guía te mostramos unos sencillos pasos para obtener el **certificado digital**.

Kobid-19ak eragindako osasun-krisia dala-eta, zalantzas beteko sasoi gogorra bizi izatea toku jaku. Egunerokoa eta lan egiteko modua bere horretara egokitu behar izan doguz, beti bere osasuna danaren aurretik jarrita.

Asago egonda bere, Mungia Udalean gure zerbitzuak eskaintzen jarraitu dogu, era telematikoan, batez bere online zerbitzuei erreparatuta; Egoitza Elektronikoa, kasurako, gure gizartean gero eta errotuago

dagoan teknologia-sistema. Plataforma horri esker, ez dogu zertan Udalera joan izapide bat egiten. Egoitza Elektronikoa erabili ahal izateko, beharrezkoa izango da eskuz idatzita dagoan sinadura ordezkaturiko dauan izenpetze-sistema izatea: **ziurtagiri digitala**.

Eskuartean daukazun gida honetan, ziurtagiri digitala lortzeko emon beharreko pausuak azalduko deusuguz, era errazean.



Zer da ziurtagiri digitala eta zertarako balio dau?



Ziurtagiri digitala dokumentu bat da, pertsonak Interneten identifikatzeko balio dauana. Gure identifikazino-datuak ditu eta organismo ofizial batek egiaztatu eta jasotzen ditu (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Ogasun Ministerioa, etab.).

Beraz, ziurtagiri digitala identifikazino-modu digitala da, pasaportearen edo gidabaimenaren modukoa.

Agiri honek entidadeetan eta administrazio publikoetan aurkeztu behar doguzan dokumentuak era elektronikoan sinatzeko balioko deusku.

GERO ETA BEHARREZKOAGOA DA ZIURTAGIRI DIGITALA IZATEA, ESKAERA-EREDU ASKO ONLINE AURKEZTU BEHAR DIRALAKO, INTERNET BIDEZ.

Bide honek **denporea aurreztea ekarriko deusku**, horixe izango

da abantailarik nagusia izapide asministratiboak egiteko orduan: eguneko edozein unetan egin ahal izango dogu, edonon, eta edozein gailu erabilia.

Kontun izan behar da ziurtagiri digitalen balio-epea mugatua dala; hau da, iraugitze-data pasatu baino lehenago barrizatu beharko da (ziurtagiri bakotxaren kasua desbardina izango da), ezpabere balio barik geratuko da.

¿Qué es y para qué sirve el certificado digital?

Un certificado digital es un documento que permite identificar a las personas en Internet. Contiene nuestros datos identificativos y están autenticados por un organismo oficial (Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia, Ministerio de Hacienda, etc.).

Por lo tanto, un certificado digital es una forma digital de identificación, como un pasaporte o el permiso de conducir.

Nos servirá para firmar electrónicamente los documentos que tenemos que presentar en entidades o administraciones públicas.

CADA VEZ ES MÁS NECESARIO DISPONER DEL CERTIFICADO DIGITAL, YA QUE MUCHOS DE LOS MODELOS DE SOLICITUD HAN DE PRESENTARSE ONLINE, A TRAVÉS DE INTERNET.

La principal ventaja es que **nos ahorrará tiempo** al realizar trámites administrativos, y lo podremos hacer a cualquier hora del día, en cualquier lugar, y desde cualquier dispositivo.

Por otro lado, los certificados digitales tienen un periodo de validez específico: antes de llegar a su fecha límite (depende del tipo de certificado), es necesario realizar su renovación, ya que el certificado queda sin vigor el mismo día que indica la fecha de expiración.

Ziurtagiri Digital motak

Gaur egungo araudiaren arabera, ziurtagiri mota honeek dagoz:

- **Pertsona fisikoaren ziurtagiria:** norbanakoa identifikatzen dauen ziurtagiria da.
- **Pertsona juridikoaren ordezkariaren ziurtagiria:** pertsona juridikoen ordezkari diran pertsona fisikoak identifikatzen dituan ziurtagiria da.

- **Izaera juridikorik gabeko erakundearen ordezkariaren ziurtagiria:** izaera juridikorik ez daukien erakundeen ordezkari diran pertsona fisikoak, zerga-eremuan eta indarreko legerian jasoten diran beste eremu batzuetan, identifikatzen dituan ziurtagiria da.
- **AP ziurtagiriak** (Administrazio Publikoa).

Ziurtagiriaren euskarriari jagokonez, era bitakoak dagoz:

- **Software-ziurtagiria:** ziurtagiria software-fitxategia da, eta ordenagailuan edo zerbitzarian dago instalatuta.
- **Txartel-ziurtagiria:** txartel bati lotutako ziurtagiria da.

Tipos de Certificados Digitales

Atendiendo a la normativa actual, los tipos de certificado son:

- **Certificado de persona física:** es el que identifica a una persona individual.
- **Certificado de representante de persona jurídica:** identifica a las personas físicas como representantes de las personas jurídicas.
- **Certificado de representante entidad sin personalidad jurídica:** identifica a las personas físicas como representantes de las entidades sin personalidad jurídica en el ámbito tributario y otros previstos en la legislación vigente.
- **Certificados AP** (Administración Pública).

En cuanto al soporte del certificado pueden ser de dos tipos:

- **Certificado software:** el certificado es un fichero software y está instalado en el propio ordenador o servidor.
- **Certificado de tarjeta:** el certificado se encuentra alojado en una tarjeta.

Erabili erregistro elektronikoa eskaerak udalera bidaltzeko

Izapide administratiboak arintzeko eta errazten jarraitzeko helburuagaz, *Erregistro Elektronikoa*ren bitartez **eskaerak, idazkiak edo komunikazioak etxetik bertatik bidali ahal izango dira**, Udalera joan barik.

ERREGISTRO ELEKTRONIKOAREN BITARTEZ ESKAERAK ONLINE BIDALI AHAL IZANGO DOGUZ, EGUNEKO 24 ORDUZ.

Erregistro Elektronikoa Mungiako Udalaren Egoitza

Elektronikoan daukazue eskura, helbide honetan: <https://sede.mungia.eus/>

Horretarako ezinbestekoa izango da zurtagiri digitala izatea (Izenpe, Bak, BakQ, nan elektronikoa, FNMT).



Utiliza el registro electrónico para enviar tus solicitudes al Ayuntamiento

Con el propósito de seguir avanzando en la agilización de trámites, el *Registro Electrónico* ofrece a las vecinas y vecinos la posibilidad de hacer llegar al consistorio **solicitudes, escritos o comunicaciones, a través de un modelo normalizado, desde casa y sin necesidad de desplazarse al Ayuntamiento.**

EL REGISTRO ELECTRÓNICO HACE POSIBLE LA PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES ONLINE DURANTE LAS 24 HORAS DEL DÍA.

El Registro Electrónico está a vuestra disposición en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Mungia, en la siguiente dirección:

<https://sede.mungia.eus/>

Zer nolako izapideak burutu ditzakegu ziurtagiri elektronikoagaz? ◀



Ziurtagiri elektronikoagaz hainbat eragiketa pribatu egin ditzakegu erakunde publikoen (Eusko Jaurlaritzara, foru-aldundiak, Gizarte Segurantza, Merkataritza Erregistroak, etab.) web-orrialdeen bidez. Gure datuak aldatzetik, modu digitalean sinatzera heldu geinke.

DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK ELEKTRONIKOKI SINATU

AHAL IZANGO DOGUZ, HALA NOLA, PDF-AK.

Besteak beste, izapide hauek burutu ditzakegu telematikoki:

- Zergak aurkeztu eta ordaindu.
- Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztu.
- Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda-datuak bete.
- Udal-errolda kontsultatu.
- Zirkulazinoko isunak kontsultatu.
- Diru-laguntzak kontsultatu eta horiek eskatzeko izapideak egin.
- Huteslekuen esleipena kontsultatu.
- Jakinarazi diren jarduerak kontsultatu.
- Dokumentu eta inprimaki ofizialak elektronikoki sinatu.

ZIURTAGIRI DIGITALAREN ELEMENTUAK

- Titularraren identitatea: Titularraren datu pertsonalak (enpresa, elkargo profesionala...)
- Titularraren gako publikoa.
- Ziurtagiriaren beraren datuak: serie-zenbakia eta iraungitze-data.
- Ziurtagiria igorri duen ziurtapen-agintaritzaren nortasuna.
- Ziurtapen-agintaritzaren sinadura.
- Titularraren posta elektronikoa (hautazkoa).


¿Qué tipo de trámites podemos realizar con el certificado digital?

Con el certificado electrónico podremos llevar a cabo diferentes operaciones privadas a través de páginas webs de instituciones públicas: Gobierno Vasco, Diputaciones, Seguridad Social, Registros Mercantiles, etc, desde modificar nuestros datos, a firmar digitalmente.

PODREMOS FIRMAR DOCUMENTOS ELECTRÓNICOS, COMO, POR EJEMPLO, UN PDF.

Podremos realizar, entre otros, los siguientes trámites telemáticamente:

- Presentación y pago de impuestos.
- Presentación de recursos y reclamaciones.
- Cumplimentación de los datos del censo de población y viviendas.
- Consulta en el padrón municipal.
- Consulta de multas de circulación.
- Consulta y trámites para solicitud de subvenciones.
- Consulta de asignación de colegios electorales.
- Actuaciones comunicadas.
- Firma electrónica de documentos y formularios oficiales.



ELEMENTOS DE LOS CERTIFICADOS DIGITALES

- Identidad de la persona titular: datos de filiación del titular (empresa, colegio profesional...)
- Clave pública de la persona titular.
- Datos propios del certificado: número de serie y fecha de caducidad.
- Identidad de la autoridad de certificación que lo ha emitido.
- Firma de la autoridad de certificación.
- Correo electrónico de la persona titular (opcional).

Lortu geinkezan ziurtagiri digitalak

Honako honeek dira lortu geinkezan ziurtagiri digital garrantzitsuenak:

1-IZENPE

IZENPE sinadura elektronikoko zerbitzuak emoten dituan Euskadiko konfiantzazko erakundea da, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek bultzatua.

IZENPE ziurtagiriaren bidez, administrazio publikoetako (tokikoa, forukoa, autonomikoa eta estatukoa) edozein kudeaketa era digitalean sinatu eta izapidetu ahal izango dogu; esate baterako: lan-bizitzaren txostena lortzea (Gizarte Segurantza), autonomoetan alta/baja emotea (Gizarte Segurantza), trafiko-isunak ordaintzea, errenta-aitorpena kudeatzea, lan-eskaintza publikoetan

eta lan-poltsetan izena emotea eta abar.

Etetik bertatik egin ahal izango dogu, urten edo jende-ilaretan itxaroten egon barik.

IZENPEREN ZIURTAGIRI MOTAK:

- **HERRITARREN ZIURTAGIRIA:** ziurtagiri honek pertsona bakoitzaren identifikazioa eta sinadura elektronikoa bermatzen dauz.
- **EAE osoan gehien erabilten dan ziurtagiri mota da. Herritar bakoitzak edozein administratzenotako (tokikoa, forukoa, autonomikoa eta estatukoa) eta bankuko izapideak sinatu eta kudeatu ahal izango ditu internet bidez, era seguruan.**

ZELAN ESKATU IZENPE HERRITARREN ZIURTAGIRIA:

Eskaera aurretiazko ordua eskatuta egingo da, telefono bidez edo web-orriaren bidez:

- 900 840 123 / 945 01 62 90
- <https://servicios.izenpe.com>

IZENPE erakundeak Identifikazio Pertsonalerako Txartela emongo deus.

Txartelak pertsonala eta besterenezina da; oso garrantzitsua da kontuan izatea sinadura digital horrek eskuz idatzitakoak daukan balio juridiko bera daukala.

Herritarren ziurtagiriak 4 urteko balioa dauka. 10,25€ balio dau (BEZ barne). Iraungi baino 60 egun lehenago, IZENPEK mezu elektronikoa bidaliko dau eskaria bideratu zanean emon zan helbidera eta mezu

Certificados digitales que podemos obtener

Los principales certificados digitales que podemos obtener son:

1-IZENPE

IZENPE es una empresa de certificación digital y servicios de confianza de Euskadi, impulsada por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales.

A través del certificado IZENPE podremos firmar y tramitar digitalmente cualquier gestión de las distintas administraciones públicas (locales, forales, autonómicas y estatales), como por ejemplo: la obtención del informe de vida laboral (Seguridad Social), darse de alta/baja en autónom@s

(Seguridad Social), pago de multas de tráfico, gestión de la declaración de la renta, inscripción en OPEs, bolsas de trabajo, etc.

Podremos hacerlo desde casa, sin tener que desplazarnos o esperar colas.

horren bidez ziurtagiri digitala barritzeko prozesuaren ganeko informazioa emongo dau.

Ziurtagiria erabilteko beharrezkoa izango da ordenadorean jakokon software-a instalatuta izatea. <https://izenpe.eus> web-orritik deskargatu zeinke. Bateragarria da Windows, MacOS eta Linux sistema eragileakaz.

Ezinbestekoa izango da Izenpe txartelen irakurgailua eukitea, USB konexioduna. Ziurtagiriagaz batera eskatu zeinke (10€ balio dau).

Izenpe txartela USB irakurgailuan sartu ostean, zure ekipoak zure ziurtagiria onartuko dau eta txartelaren PIN zenbakia sartzeko eskatuko deus. Zure gailuak zure ziurtagiria identifikatuko dau eta edozein kudeaketa edo



izapide administratibo burutu ahal izango dozu erraz.



Herritarren ziurtagiri digitala



Erakunde eta izaera juridikorik gabeko erakunde ordezkarien ziurtagiri digitala



Korporatiboen ziurtagiri profesionala



Langile publikoen ziurtagiri profesionala

2-BAK ETA BAKQ

Bak Identifikazio elektronikoko bitarteko berria da, **erabilteko oso erraza, Foru Aldundiagaz izapideak egiteko balio dau ordenagailu batetik edo telefono mugikorretik**. Izenpe egiaztatze-erakundeari daokio. **Doakoa da.**

Bak-en ezaugarriak honek dira:

- Erabiltzailearen identifikazio-zenbakia: norbanakoaren NAN/AIZ zenbakia.
- Pasahitza
- Kualifikatu gabeko ziurtagiri bat. Berori Izenperen gordailu zentralizatu

TIPOS DE CERTIFICADOS DE IZENPE:

- **CERTIFICADO CIUDADANO:** este certificado garantiza la identificación y firma electrónica de una persona individual.

Es el tipo de certificado más utilizado en toda la CAV. La ciudadana o ciudadano podrá firmar y tramitar a través

de internet todas las gestiones de todas las administraciones (locales, forales, autonómicas y estatales) y entidades bancarias de forma segura.

CÓMO SE SOLICITA EL CERTIFICADO CIUDADANO DE IZENPE:

La solicitud se realiza mediante cita previa en Izenpe, de manera telefónica o a través de su

página web:

- 900 840 123 / 945 01 62 90
- <https://servicios.izenpe.com>

IZENPE le proporcionará el certificado ciudadano en forma de Tarjeta de Identificación Personal.

La tarjeta tiene carácter personal e intransferible, es muy importante tener en cuenta que esta firma tiene la misma validez jurídica que la firma manuscrita.

seguru batean, "hodeian", igortzen da eta sinatzeko ekitnzetarako balioko dau.

BakQ Bak mota bat da, segurtasun-elementu erantsia (koordinatuak) daukana. Era berean, Bak-a baino balio juridiko handiagoa daukan "hodeiko" ziurtagiria ere bada.

BAK-EN AKTIBAZINO-

KODEA ESKATZEKO WEB-INPRIMAKI BAT BETE BEHAR DA ALDUNDIAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN:

<https://appsec.ebizkaia.eus>

Bizkaiko kontakua:
94.608.30.00

3-NAN ELEKTRONIKOA

NAN ELEKTRONIKOA LORTZEKO:

- Aurretiatzko zita eskatu (www.citapreviadnie.es / 060)
- Ezarritako tasa ordaindu eta behar diran agiriak aurkeztu: <https://www.dnielectronico.es/>

El certificado ciudadano tiene una validez de 4 años. Su coste es de 10,25€ (IVA incluido). 60 días antes de la fecha de caducidad, IZENPE le enviará un correo electrónico a la dirección cedida en el momento de la solicitud para informar del proceso de renovación del certificado digital.

Para hacer uso del certificado, será necesario instalar en su equipo el software específico que lo podrá descargar en: <https://izenpe.eus>. Es válido para Windows, MacOS y Linux.

También será necesario poseer un lector Izenpe para tarjetas, con conexión USB. Lo puede solicitar junto con el certificado. El lector tiene un coste de 10€.




Una vez conectado el lector de tarjeta USB y la tarjeta Izenpe, su equipo reconocerá su certificado y solicitará que introduzca el PIN de la tarjeta. Su dispositivo identificará su certificado y podrá realizar cualquier gestión o trámite administrativo, de manera sencilla.



Certificado digital ciudadano



Certificado digital de representante de entidad y entidad sin personalidad jurídica



Certificado profesional personal público



Certificado profesional corporativo

2-BAK Y BAKQ

Bak es un nuevo medio de identificación electrónica **muy sencillo para realizar trámites con la Diputación desde un ordenador o desde un teléfono móvil.** Pertenece a la entidad certificadora Izenpe. **Es gratuito.**

4-DIRUAREN ETA ZERGA-ZIGILUAREN FABRIKA NAZIONALA (FNMT)

Ogasun Ministeriora atxikitako estatu mailako ziurtapen-agintaritza da. Gure kasuan, estatuko administrazioari jagokezan izapideak era digitalean sinatzeko eta

kudeatzeko balioko deusku, adibidez, Gizarte Segurantzaren izapideak: lan-bizitzaren txostena, kotizazio-oinarriei buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren betebeharren ganean jakitun egotearen txostena, etab., identifikazio-sistema berriak garatzen ditu.

FNMT ZIURTAGIRI DIGITALA LORTZEKO:

<https://www.sede.fnmt.gob.es/certificados>



FNMT ziurtagiri digitala

El Bak está formado por:

- Un número de identificación: el DNI/NIE de la persona usuaria.
- Una contraseña.
- Y un certificado no cualificado emitido en un repositorio centralizado seguro de Izenpe, la "nube", que servirá para los actos de firma.

BakQ es, en realidad, un Bak con un elemento de seguridad añadido: las coordenadas. Y un certificado en la "nube" de mayor consideración jurídica.

LA SOLICITUD DEL CÓDIGO DE ACTIVACIÓN DEL BAK SE REALIZA COMPLETANDO UN FORMULARIO WEB EN:

<https://appsec.ebizkaia.eus>

Contacto Bizkaia:
94.608.30.00

3-DNI ELECTRÓNICO

PARA OBTENER EL DNI ELECTRÓNICO:

- Solicite cita previa (www.citapreviadnie.es / 060)
- Abone la tasa legalmente establecida y la presentación de documentos necesarios.

<https://www.dnielectronico.es/>

4-FÁBRICA NACIONAL DE MONETA Y TIMBRE (FNMT)

Es una autoridad de certificación estatal adscrita al Ministerio de Hacienda. Trabaja para entidades públicas y privadas. En nuestro caso, nos servirá para firmar y tramitar digitalmente gestiones pertenecientes a la

administración estatal, como trámites de la Seguridad Social: informe de vida laboral, informe de bases de cotización, informe de estar al corriente en las obligaciones de la Seguridad Social, etc.

PARA OBTENER EL CERTIFICADO DIGITAL FNMT:

<https://www.sede.fnmt.gob.es/certificados>



Certificado digital FNMT



Edonon eta edozein gailu erabilia; ziurtagiri digitala 24 orduz eta segurtasun osoz, zure izapideak egiteko!

Desde cualquier sitio, desde cualquier dispositivo, el certificado digital disponible durante las 24 horas y de manera segura, para realizar tus trámites!



MUNGIA
UDALA

